

IRAKASKUNTZA

PUBLIKOA

irakaskuntza

ELA

gizalan

EAEko IRAKASKUNTZA PUBLIKOko BOLETINA

ENERO 2010 URTARRILA

Cartas boca arriba

Atrás han quedado los primeros cien días del nuevo Gobierno Vasco. Y más atrás todavía todas las llamadas a la transversalidad. El acuerdo entre diferentes se ha quedado en nada y sólo alcanza a las formaciones de obediencia española. La estrategia uniformizadora que comparten les lleva a trabajar unidas para identificar, desdibujar y desactivar aquellas materias especialmente significativas. Con un objetivo claro: convertir la CAPV en una comunidad más, sin apenas elementos diferenciadores. De esta manera, las cuestiones simbólicas son las únicas sobre las que se puede decir que ha actuado este gobierno. Gobierno que proclama la necesidad de superar supuestas obsesiones identitarias, pero en la práctica se preocupa muy mucho de dejar clara su adscripción española.

En este contexto, las cuestiones educativas han adquirido especial relevancia. Dejando a un lado los mensajes ponderados e integradores, despojándose de todo ropaje, los responsables del Departamento de Educación han puesto sus cartas boca arriba. Hemos escuchado afirmaciones muy, muy hirientes: que el castellano ha sido marginado, que los resultados de nuestros alumnos en ciencias se deben a la dificultad intrínseca del euskara, que van a recuperar al profesorado que fue expulsado por no saber euskara, que no ha habido libertad para elegir la lengua en la enseñanza, que el 80% de la población de la CAPV ha sido tratado como extranjera... y otros muchos dislates. Todo ello aderezado con la indignante acusación de adoctrinamiento nacionalista realizada contra quienes trabajamos en los distintos ámbitos educativos.

Los proyectos que han anunciado no son menos graves. Obsérvese, como primer plato, lo que plantean con el currículo educativo: despojar al euskara de su carácter de lengua preferente y eliminar o reducir a un carácter casi folklórico el término Euskal Herria. Y lo que puede venir más adelante: enseñanza trilingüe, presencia de algunas víctimas en las aulas...

Lo que se pretende con todo ello está muy claro: materializar, también en el terreno escolar, el principal objetivo del actual Gobierno Vasco. En definitiva, uniformizar el Estado, haciendo de la CAPV una comunidad más.



Jaurlaritza berriaren Hezkuntza Sailak orain arte izan duen jarduna etsigarria izan da

KARTAK AGERIAN

Atzean, oso atzean geratu dira Eusko Jaurlaritza berriaren lehendabiziko ehun egunak. Zilegi da, beraz, estatu mailako esanekoak diren alderdiekin eginiko akordioari esker sortutako Gobernu honek adierazitakoa eta egindakoa aztertzen hasia. Atzean, oso atzean ere geratu dira inoiz transversalitateaz egin zituzten adierazpenak. Estatu mailan mutur joka ari badira ere, herri honetarako daukaten estrategia uniformizatzaileak ahalbidetu die gobernuari babesa ematen dioten alderdi horiei akordioa egitea gurean, bat baita toz herri honetan esangura berezia duten gaiak identifikatu lehendabizi

eta gero desitxuratze bidean jartzeko. Helburua, agerian geratu da garbi asko: EAE beste edozein erki degoren mailako bilakatu, inolako bereizgarririk gabe.

Gai guztiak garrantzitsuak izanik ere, ildo hau oso nabarmena da ukitu sinboliko handiagoa daukaten esparruetan, ohartuta baitaude sinboloek irudikari kolektiboan duten garrantzia. Eta horietatik bihurtu dira, hain zuzen, gobernu honen ekinbidearen ardatz. Benetan harri-garria da halakorik gertatzea kontu identitarioak bazter utzi, eta herritarren ustezko arazo benetakoei aurre egiteko asmoa agertu dutenen eskutik.



Arlo desberdinei eragiten die politika honek. Esate baterako, eguraldiaren maparen aferaz Euskal Herriko errealtatea lausotu nahian aritu dira, jakitun badira ere mapa batek ezin dizkiola benetako hesiak jarri herri baten nahiriari. Beste horrenbeste esan daiteke ertzaintzaren janzkerak eraman behar duen modu bateko edo besteko ikurrinaz. Sinboloaz hitz egiterakoan ezin ahaztu, isilpean pasa nahi izan bada ere, dagoeneko gure herriko makina bat instituzioetan espainiar bandera kulunkatzen dela.

HEZKUNTZA BALIATU NAHI DUTE

Testuinguru honetan, hezkuntzak berebiziko zentralitatea hartu du. Mezu neurtu, adostaille eta integraztaileak bazter utzita, mozorro guztiak erantzita, kartak agerian utzi dituzte Hezkuntza Saileko arduradunek. Euren ahoetatik entzun ditugunak ez dira gozoak izan: gaztelania baztertua izan dela, zientzietan lortutako emaitza eskasak euskararen berezko zailtasunaren ondorio direla, euskara ez jakiteagatik ustez egotzi edota alde egitera behartuak

La Educación ha adquirido gran relevancia. Han dejado a un lado mensajes ponderados e integradores, y quitándose la careta, los responsables del Departamento de Educación han puesto sus cartas boca arriba.

izan diren irakasleak itzultzea bultzatuko dutela, irakasteko hizkuntza hautatzeko askatasunik ez dela izan, EAEko populazioaren %80a atzerriar baten eran tratatua izan dela... eta beste hainbat astakeria.

Hori guztia, gainera, aitzakia iraingarri bezain faltsu bat erabiltza: orain arte gertatu den ustezko dotrina abertzalearekin amaitu nahi dutela. Zer uste dute? Hezkuntzako langileok irizpiderik gabeko txotxongiloak gabela? Inoren dotrinaren igorgailu huts gabela? Zer espero dute? Hemendik aurrera dotrina berriaren mezulari akritiko bihurtuko gaituztela?

KEZKATZEKO MODUKO EGOERA

Eta erakutsi dituzten asmoak ere larriak dira. Ikus bestela lehendabizi,



El Departamento de Educación ha dejado claras sus pretensiones: materializar, también en el terreno escolar, el principal objetivo del actual Gobierno Vasco, esto es, uniformizar el Estado, haciendo de la CAPV una comunidad más.

zer gertatzen ari den curriculumarekin. Batetik, euskarari irakaskuntza-hizkuntza nagusiaren izaera kentzeak eta horren ordez gaztelaniarekiko ustezko (ez benetako) parekatzea ezartzeak, euskara desabantailan uztea dakar, kontuan izanda bere egoera diglosikoa.

Bestetik, Euskal Herria kontzeptuaren desagerepenak edota kategoria ia folkloriko batera murrizteak gure errealtate nazionalarekiko erreferentzia guztiak curriculumetik ezabatzea dute helburu.

Erne baita ere, iragarri dituzten beste ekimenekin: hirueleko irakaskuntza, terrorismoak eragindako biktimak ikastetxeetan...

Honek guztiak erakusten du azkeneko urteetan jorratutako bidean atzera egin nahi dutela.

Hezkuntza Sail honen ildoak garbia da: eskola arloan EAE beste edozein erkidegoren pareko bilakatu, inolako bereizgarririk gabe, era horretan gaur egungo Eusko Jaurlaritzak daukan helburu nagusia, Estatua uniformizatzea, hezkuntza arloan ere gauzatu.

Lan baldintzak hobetu, eskola publikoa indartu **HITZARMEN BERRIAREN NEGOZIAZIOA HASTERA DOA**



Irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren iraunaldia 2009ko abenduaren 31n amaitu da. Ezinbestekoa da, hortaz, hitzarmen berri baten negoziatioari ekitea. Komeni da gogoraztea iraunaldia amaitu berri duen hitzarmena Hezkuntza Sailarekin gutxiengoan lotsagabeki izenpetutakoa dela. Hitzarmen horrek ez zituen bere baitan jasotzen 2007-2008 ikasturteko mobilizazioetan irakasleek egindako eskabideak, ezta eskola publikoa indartzeko planteatu ziren neurriak ere. Horregatik, ELAk gaitzetsi egin zuen hitzarmen hori.

GUTXIENGOAN SINATUTA

Gainera, bereziki azpimarragarria da, unibertitatez kanpoko irakaskuntza publikoaren arloan lehendabiziko aldiz, irakasleen lan-baldintzen akordioa ez zela izan irakasleen ordezkari gehien eta Hezkuntza Sailaren arteko akordio baten ondorio. Hitzarmen horrek, hasieran CCOOren babesarekin izan zuen (%33ko ordezkartza baino ez duena). Era horretan, eta CCOOren laguntza ezin baliotsuagoari esker, Hezkuntza Saila ere aurretik halako jokaldiak egin zituzten beste Sailen parean jarri zen arlo honetan, eta Tontxu Campos EAEko lehendabiziko Hezkuntza Sailburua izan zen gehiengo eta gutxiengoaren printzipioa errespetatu ez zuena, ezinbestekoa berau, demokraziaren arauak errespetatu nahi dituen akordio orotan. Geroago UGTk sina-

tu izanak ez zuen egoera aldatu, era horretan ere ez baitute gehien-goia osatzen.

Esan bezala, akordio horrek ez zituen jaso 2006-2007 ikasturteko mobilizazioetan ardatz eta funtsa izan ziren irakasleen eskabideak, ezta irakaskuntza publikoa indartzeko gehiengo sindikalak planteatu genituen neurriak ere. Hori gutxi balitz, aurrekoetan jasota zeuden hainbat gairekiko atzera pausu nabarmenak ere ekarri zituen (55 urtetik gorakoentzako ordu lektiboen murriztapenerako aipamena desagertu; irakasle egonkor ohien lan baldintzak okertu; Haur eta Lehen Hezkuntzan 23 ordu lektiboetatik 22ra jaisteko aukera ezabatu; Gizarte Segurantzaren erregimen orokorreko irakasle funtzionarioentzat borondatezko erretiroari dagokion ordainsari berezien modalitate-tako bat jaso ahal izateko aukera deuseztu; irakaskuntza arautuaz kanpoko irakasle-lanaren araudia ezabatu; beste aipamen hauek ere desagerrarazi: ez arautuan emandako ordu bakoitzak arautuaren ordu eta erdiko balioa izango duela eta aparte orduekin bukatzeko asmoak).

Garbi dago 2006-2007 ikasturteko mobilizazioetan helburutzat jo genituen eskaeretatik akordioa hain urrun geratzeak frustrazio handia sorrarazi zuela. Lotsagarria izan zen burutu genuen mobilizazio-prozesu handi hura honelako akordio pobre batekin bukatu izana. ELAren iritziz, Hezkuntza Sailak eta CCOOk gutxiengoan izenpetutako akordioa irakasleen asmoekiko eta borondateari eginiko iruzur handia baino ez zen izan.

NEGOZIAZIOAK HASTEAR

Baina orain egoera hori zuzentzeko aukera daukagu, ezinbestez hitzarmen berri baten negoziatioari ekin behar zaio eta. Jadanik finkatuak dira negoziatioaren lehendabiziko datak. Urtarrilaren 18an mahaia osatuko da eta urtarrilaren 28an plataformen aurkezpena egingo da.

Tenemos de nuevo la oportunidad de pelear por mejorar nuestras condiciones de trabajo y fortalecer la escuela pública

Une honetan, plataforma osatzeko lanetan gabilta buru-belarri. Orain bi urte mobilizazioetan ardatz izan genituen aldarrikapenak bete gabe geratu zirenez, ulergarria da plataformak neurri handi batean haixek jasotzea berriz ere, baina (denborak ez du alferrik aurrera egiten) eduki berriak ere jasoko ditu, ezbairik gabe. Plataformak jomuga garbia izango du: lan baldintzak hobetuz, eskola publikoa indartzea, biak txanpon bereko bi aldeak dira eta.

Halaber, ezin aipatu gabe utzi EAEko Mahai Orokorrean erdietsitako akordioa, datozen urteotan irakaskuntza publikoan behin behinekotasunari aurre egiteko eta enplegu finkoa bultzatu eta ugaltzeko tresna bihurtu behar dugula negoziatio honetan. Bertan jasotzen diren enplegu-eskaintzak eta lanpostu finko organikoak egiteko zenbakiak negoziatio honetan gauzatu behar dira.

EDUKIEI ERREPARATU

Dena dela, argi gera bedi lehenbailehen, akordio honek gutxieneko edukiak jasotzen ditu, gutxieneko zoru bat jartzen du Eusko Jaurlaritzaren menpeko langile gutzientzat, baina ez dio inolako mugarik ezartzen –ez edukiei, ez esparruei dagokienez– gure sektoreko negoziatioari. ELAk irizpide bati eutsi dio eta eutsiko dio beti, akordioak sinatzea ala ez, edukien araberako erabakia dela: edukirik gabe ez dago sinadurarik.

Hori kontuan hartuta, hitzarmen berriaren negoziatioa hastear dagoen honetan irakasleen lan-baldintzak hobetzeko eta eskola publikoa indartzeko bere borondate eta jarre-berretsi nahi ditu ELAk.

Curriculumaren aldaketak ESTATU OSOKO HEZKUNTZA UNIFORMIZATZEA HELBURU



Oso litekeena da urtarrilean zehar indarrean sartzea EAEko curriculumak aldatzen dituzten dekretuak. Baliteke, beraz, lerro hauek irakurtzen dituzunerako aldaketak eginak egotea. Isabel Celaak zuzentzen duen Sailak gai honetaz dituen helburuak adierazi eta ezagutarazi zituenetik, ezin esan daiteke iritziak, oro har, oso aldekoak izan direnik.

Aldaketa hauen edukiak zein diren jakin ahal izan zenetik (hedabideetatik, ez baita inolako kontsulta eta eztabaidarik izan alde aurretik), ELAk argiro adierazi zuen bere jarrera. Gaur egungo Eusko Jaurilaritzak daukan helburu nagusia Estatua uniformizatzea bada, EAE beste edozein erkidegoren pareko bilakatuz, Hezkuntza Sailak planteatu dituen curriculumaren aldaketak eskolaren esparruan ere helburu hori gauzatzeko saiakera bat baino ez dira.

Aldaketa hauek eragiten dieten gaiek –euskararen izaera eta Euskal Herria kontzeptua– agerian uzten dute, argi asko, Hezkuntza Sail honen ibilbidean obsesio identitarioak, espainolak kasu honetan, daukan garrantzia.

EUSKARA, GALTZAILE

Zentzu honetan azpimarragarria da, nahiz eta aldaketa hauek aurkezterakoan Hezkuntza Sailak adierazi duen helburua “elebitasun integratzailea erraztea” dela, aldaketa horiek hain zuzen ere helburu hori erdiestea guttiz oztopatuko dutela. Izan ere, ezarri nahi diren aldaketen arabera, euskara ez da izango irakasteko hizkuntza nagusia. Haatik, gaurdaino egindako ikerketa guztiek frogatzen dute euskara irakasteko hizkuntza

nagusizat daukan ereduak bakarrik lortzen duela modu gutxienerako batean “benetako gaitasuna ulermenerako eta adierazpenerako, hitzez eta idatziz, bi hizkuntzetan, horrela, gutxiarik, harremanetarako eta erabilpen arruntetarako hizkuntzak bezala erabili ahal izateko” (Euskal Eskola Publikoaren Legea). Aitzitik, enpirikoki frogatuta geratu da euskara irakasteko hizkuntza nagusi bezala erabiltzen ez duten ereduak ez dutela inola ere hori bermatzen.

Horrenbestez, euskarari irakasteko hizkuntza nagusiaren izaera kentzeak egungo egoera sozio-linguistikoan esan nahi du, argi eta garbi, aldaketa hau planteatzeko aldarrikatzen den helburua bera lortzea ezinezko bihurtzea, eta, horrez gain, indarrean dagoen legediak ezarritakoa sistematikoki ez betetzearen alde jotzea. Hau guztia, gainera, gaztelaniaren eta euskararen ustezko –ez benetako– parekatze baten izenean egitea, praktikan euskara desabantailan uztea da, gaur egungo egoera diglosikoa kontuan hartzen badugu. Parekatze faltsu bat dela esan beharra dago. Horretaz jabetzeko nahikoa da salbuespenen kasuan hizkuntza bati eta besteari ematen zaien trataerari erreparatzea.

JARRERA KRITIKOAK

Bestetik, Hezkuntza Sailak adierazten du “Euskal Herria terminoaren erabilpenaren gaineko aldaketak sartu direla”. Errealitatean, esan liteke praktikoki bere desagerpenari ekin diotela, okasio oso jakinetan bakarrik mantendu baita, gehienetan Euskadi terminoaz ordezkaturia izanik, nahiz eta beste batzuetan beste ordezeko termino batzuk erabili diren (kasu batean baita planeta terminoa ere) eta beste hainbatetan ezabatu besterik ez den egin. Termino hau ezabatzeko edo maila ia folkloriko batera murrizteko obsesio honen zioa gure nazio izaeraren gai-

neko edonolako erreferentzia hezkuntza curriculumetatik desagerraraztea da argi eta garbi. Aldaketa hauekin, era grafikoan esateko, uniformizazio gehiago eta euskara gutxiago izango da EAEko hezkuntzan.

Arestian esan bezala, aldaketa hauekiko jarrera kritikoak ugariak izan dira. Hezkuntza eragileak (sindikatuak, guraso elkarteak, zuzendariak, ikasleak) eta alderdi politiko gehienak ez dira bat etorri inola ere Sailaren asmoekin.

ESKOLA KONTSEILUARI JARAMONIK EZ?

Zentzu honetan azpimarratzekoa da abenduan Euskadiko Eskola Kontseiluak eginiko txostena. Zenbait hedabidetan besterik adierazi bada ere, txosten hori ez da batere samurra izan Celaak zuzentzen duen Hezkuntza Sailaren egitasmo honekin. Izan ere, batere ohikoa izaten ez den jarrera kritikoak agertzen du. Euskara eta Euskal Herria terminoarekin egin nahi diren aldaketekin, bereziki. Txostenak Hezkuntza Sailari gogorazten dio, betetik, euskarak –hizkuntza ofizial den heinean– lehenasunezko trataera merezi eta behar duela herri-botereen aldetik, hezkuntzaren esparruan batez ere, legeetan jasotzen diren helburuei dagokienez haren ezagutza delako oraindik bermatzen ez dena; bestetik, curriculumean Euskal Herria terminoaren izaera edo zentzu soziala eta historikoa ere jasotzearen aldeko aldarria egiten da. Azken finean, txostenean Eskola Kontseiluak eskatu du euskararen lehenasunezko izaera mantentzea eta Euskal Herria kontzeptuaren esanahi osoari eustea. Ondorioa garbia da: aldaketa hauen funtsa diren gaitetan, aurrez aurre daude Eskola Kontseiluaren txostena eta Hezkuntza Sailak proposatzen duena.

Eskola Kontseiluaren txostenak ez dira bete beharrekoak, aholkuak baino ez dira. Dena dela, Hezkuntza Sailak bere asmoarekin aurrera egi(te)n badu besterik gabe, edota azaleko aldaketak baino ez baditu egingen, okerreko bidea hartu(ko) du gure iritziz, ezin ahantzikoa baita hezkuntza-eragile gehienek eta hezkuntzako langile gehienek aurkako ekimena dela. Gogoetarako eta nork bere ardurari eusteko garaia izango da.

Aunque la opinión de la mayoría de agentes educativos y sindicales es contraria, el Departamento pretende uniformizar la enseñanza de la CAPV con la del resto del estado y una menor presencia del euskara en la misma.


2010eko BIGARREN HEZKUNTZAKO EPE-a URTARRILEAN JARRIKO DA ABIAN

Urtarrilean zehar argitaratuko da irakasleen 2010eko EPEaren deialdia. Jakina denez, aurtengo deialdia Bigarren Hezkuntzako izango da. Deialdia urtarri-laren 11n argitaratuko da EHAAn. Eskaera egiteko epea urtarriaren 12tik otsailaren 1a arte, biak barne, egongo da zabalik.

Lanpostuen eskaintza hau da:

- A) librea
- B) ezinduen
- D) goragoko lantalde baterako sarbidea

ELAren iritziz, Enplegu Publikoko eskaintza hau ez da nahikoa inola ere eta benetan salagarria da eskaintako lanpostuetatik %20 baino gehiagotan ez dela euskaraz irakasteko gaitasunik eskatuko.



Se trata de una OPE claramente insuficiente y, además, en más del 20% de las plazas ofertadas la capacitación para impartir en euskara no será requerida

| | 1 HE / PL 1 | | | 2 HE / PL 2 | | | GUZT./TOT. |
|---|-------------|----------|-----------|-------------|-----------|------------|------------|
| | A | B | D | A | B | D | |
| Greker a / Griego | - | - | - | 2 | - | 2 | 4 |
| Latina / Latín | - | - | - | 2 | - | 3 | 5 |
| Geog. eta Hist. / Geog. e Hist | - | - | - | 9 | 1 | 10 | 20 |
| Fisika eta Kimika / Física y Quím. | - | - | - | 4 | 1 | 6 | 11 |
| Biolog. eta Geolog. / Biol. Y Geol. | - | - | - | 13 | 1 | 14 | 28 |
| Frantsesa / Francés | - | - | - | 7 | 1 | 7 | 15 |
| Ingelesa / Inglés | - | - | - | 10 | 1 | 12 | 23 |
| Musika / Música | - | - | - | 7 | 1 | 8 | 16 |
| Gorputz Hezkuntza / Educ. Física | - | - | - | 8 | 1 | 9 | 18 |
| Hezkuntza Orient. / Orient. Educ. | - | - | - | 4 | - | 4 | 8 |
| Teknologia / Tecnología | - | - | - | 9 | 1 | 10 | 20 |
| Economía / Economía | - | - | - | 5 | 1 | 6 | 12 |
| Informatika / Informática | - | - | - | 7 | 1 | 8 | 16 |
| Enpresen Adm. / Adm. Empresas | - | - | - | 2 | - | 3 | 5 |
| Lan Prest. eta Orient. / FOL | 15 | 1 | 15 | 10 | 2 | 11 | 54 |
| Eskuartze Soziok. / Interv. Socio. | 2 | - | 1 | 7 | 1 | 8 | 19 |
| Zur. Altz. Pr. Pr. / Pr. Pr. Mad. Mueb | 1 | - | 1 | 1 | - | 1 | 4 |
| Sist. Elektrot. Aut. / Sis. Electrot. Autom. | - | - | - | 5 | 1 | 6 | 12 |
| Ibilg. Ma. Ant. Pr. / Org, Pr. Mant. Veh | 1 | - | 1 | 2 | - | 3 | 7 |
| Ant. Fab. Mek. Pr. / Org. Pr. Fab. Mec. | 1 | - | - | 6 | 1 | 6 | 14 |
| Ant. Energ. Sist. Pr. / Org. Pr. Sis. Ener. | 3 | - | 3 | 1 | - | 2 | 9 |
| Estetika / Estética | 2 | - | - | 2 | - | - | 4 |
| Zurg. Altz. Ins. Fab. / Fab. Ins. Car. Mue. | 3 | - | - | 2 | - | - | 5 |
| Ek. Ter. Fl. Ins. Man. / Inst. Mant. Eq. Term. Fluid | 4 | - | - | 2 | - | - | 6 |
| Instal. Elektrotek. / Inst. Electrotéc. | 5 | - | - | 4 | 1 | - | 10 |
| Ibilgail. Mant. / Mant. Vehic. | - | - | - | 13 | 1 | - | 14 |
| Mak. Mant. Mek. / Mec. Mant. Máq. | 3 | - | - | 12 | 1 | - | 16 |
| Ile-Apalketa / Peluquería | 2 | - | - | 2 | - | - | 4 |
| Osasun Lag. Proz. / Proc. San. Asist. | 5 | - | - | 10 | 1 | - | 16 |
| Arte Graf. Prod. / Prod. Artes Gráf. | 4 | - | - | - | - | - | 4 |
| Giz. Zerbitzuak / Serv. Comunidad | 5 | - | - | 14 | 1 | - | 20 |
| Inform. Sist. Aplik. / Sist. Aplic. Informát. | 12 | - | - | 8 | 1 | - | 21 |
| SOLDADURA | 4 | - | - | 6 | 1 | - | 11 |
| GUZTIRA / TOTALES | 72 | 1 | 21 | 196 | 22 | 139 | 451 |

IRALEn IKASTAROA EGIN DUTEN IRAKASLEEN ORDEZKOAK KALTETUTA



Por razones pedagógicas y de justicia el contrato del personal sustituto de quienes están en IRALE debe estar en vigor hasta el último día del trimestre lectivo de cada centro

Ikasturte honetako lehendabiziko hiruhilekoan IRALEn ikastaroa egin duten irakasleen ordezkoei

kontratua abenduaren 18an eten die Hezkuntza Sailak lehenengo aldiz, eta ez hiruhilekoa amaitzean.

Aurreko urteetan ere saiatu izan da Hezkuntza Saila aurten egin duena egiten, baina orain arte ez zen ausartu. Asmoa zein zen jakinda, aurreko urteetan bezala, eskaera zuzendu zion azaroan ELAk Pertsonalaren Kudeaketarako Zuzendariari helburu jakinarekin: IRALEn dauden irakasleen ordezkoei kontratua hiruhilekoa bukatu arte luza zekiela, horrelako erabakiekin ez baitira inola ere kontuan hartzen ez ikastetxeetako antolakuntza eta egutegia, ezta irakasle ordezkoei merezi duten adeitasuna ere.

Halako eskaera egiteko dauzka-gun arrazoiak pisuzkoak direla uste dugu.

Batetik, ia hiruhileko osoan lanean aritu den irakasleari dagokio, gure iritziz, azken egun horietan egiten diren gurasoekiko bilerak,

ikasleen txostenak, hiruhilabeteko amaiera-ekitaldiak eta jaiak etab. antolatzea eta egitea.

Bestetik, oso komenigarria da IRALEn izan den irakaslea eta haren ordezkoa egun batzuetan elkarrekin egotea ikastetxean, batak besteari egoeraren berri eman diezaion eta gutxieneko koordinazioa berma dadin.

Tamalez, Hezkuntza Sail berriak ez dio inolako jaramonik egin gure eskaerari eta Pertsonalaren Kudeaketarako Zuzendariak (harrigarria honelako erabaki bat, orain ez urte asko sindikatu bateko arduradun izandako batek hartu izana) abenduaren 18an eten ditu kontratuak, arestian esan dugun bezala. Goian aipatutako arrazoiengatik, uste dugu ikastetxeek eta irakasle ordezkoei tratatu hobea merezi dutela.

LABORALAK HEZIKETA BEREZIA HITZARMEN BERRIA LAN BALDINTZAK HOBETZEKO

2010. urteak hitzarmen berriaren urtea behar luke. ELAk hitzarmen berriaren plataforma helarazi die Hezkuntza Saileko arduradun berriei. Jakina da ez dela posible izan hitzarmena berritzea 2003. urteaz geroztik, administrazioaren itxikeria medio, inolako adostasunik lortzea ezinezkoa izan delako.

Argi eta garbi daukagu hitzarmen berri orok lan baldintzak hobetzeko balio behar duela. Edukirik gabe, ez da hitzarmen berririk izango. Gogoko genuke beste era bateko jarrera erakutsiko balute, langileen aldekoagoa. Gure aldetik, eskuan duguna egingo dugu akordio duin batera iristeko, baina hori lortzeak beharrezko egingo balu, ez diogu muzin egingo mobilizazioari eta borrokari.

Oinarrizko ardatzak

■ **Asteko** gehienezko lanaldia: 35 ordu

■ **Eguneko** gehienezko lanaldia: 7 ordu

■ **Eguneko lanaldia** goizean eskola hasi eta arrat-

saldean eskola bukatu bitarteko aldiari gauzatuko da (beraz, funtzioetatik kanpo geratuko litzateke goizeko eta arratsaldeko eskola garraioa)

■ **Uda kobratzearena.** Udako oporraldian suerta litezkeen kontratazio arazoak ekidin asmoz, eskala bat proposatzen dugu zeinaren bidez kontratuaren iraupenak jasoko duen, gauzatutako lan egunez gain, jai-egun, igande eta oporrei ere dagokien zati proportzionala

■ **Ordainsariak:** Hezkuntza Laguntzako Espezialisten kasuan, Eusko Jaurlaritzako lanlegepekoen 7. mailarekin parekatzea (negoiazioan adostuko den lanaldiaren arabera). Fisioterapeuta eta okupazio-terapeuta kategorietan, maisu/maistra kidego-ko funtzionarioek dituztenekin parekatzea.

■ **Errelebo kontratua:** bere aplikazioa gauzatzea langileen borondatez eta honek ezarritako legeko baldintzak betetzen dituenean. Ordezkoa %100ean kontratatua izatea eta ordezkatuak ikasleei arreta zuzenik eskaini gabe gauzatzea dagokion lanaldia.

■ LPZetara azalera hezkuntza laguntzako espezialisten benetako **lanpostu hutsak**, gero lekualdatze lehiaketetara ateratzeko eta EEP batean eskaini ahal izateko.

■ **Ordezkapenatarako zerrendak** lurraldeka, baita eskualdeka ere.

■ **Bazkaritarako ordu bete erreala.**

■ **Zeinu-hizkuntzako itzultzaileak** hitzarmenean sartu, funtzioak eta lan baldintzak zehaztu.

Las diputaciones suben las retenciones del IRPF y penalizan a trabajadoras y trabajadores para compensar la caída de la recaudación

HACIENDA DESCONTARÁ AÚN MÁS DE NUESTRAS NÓMINAS

A partir de enero de 2010 las Haciendas de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa aplicarán unos **tipos de retención del IRPF superiores a las del 2009** en las nominas de asalariadas, asalariados y pensionistas. Los efectos inmediatos de esta tropelía provocarán la disminución de nuestra renta disponible, siendo los asalariados más perjudicados los que ganen entre 21.000 y 31.000 euros anuales. Además de esto, a partir del 1 de Julio de 2010 también aumentarán los impuestos indirectos que pagamos por la compra de bienes y servicios a través del IVA, un impuesto, de por sí especialmente regresivo, que penaliza las rentas más bajas. La deducción de los 400 euros en la declaración de la renta también desaparece en líneas generales, pues se mantiene únicamente para quienes presenten unos ingresos brutos inferiores a 15.000 € y en parte para los ingresos entre 15.000 y 20.000 €.

En este punto conviene recordar que las administraciones, que ahora imponen este tipo de medidas contrarias al interés de la gran mayoría de la población, previamente han adoptado otro tipo de medidas tendientes a bajar, e incluso a hacer desaparecer en algunos casos, los impuestos de las rentas más elevadas. Esta **política fiscal injusta y regresiva** se ha orientado en los años de bonanza económica a reducir los impuestos a las



empresas, eliminar el impuesto de patrimonio que pagaban las rentas más elevadas, a rebajar el impuesto de sociedades que grava los beneficios empresariales (sólo cuando se declaran y sólo sobre lo que se declara) y a dispensar un trato de favor a las rentas de capital haciéndolas tributar a un tipo impositivo fijo y muy bajo. En lugar de combatir el fraude y reforzar la progresividad fiscal, **cargan las tintas contra la gente trabajadora**, convirtiéndola en el pagano de la crisis y exonerando injustamente de su responsabili-

dad a los que han provocado la actual situación, entre los que se incluyen los propios políticos neoliberales.

CON LAS RENTAS ALTAS

Cuando no ha habido problemas de recaudación han fomentado rebajas y exenciones de todo tipo a quienes más tienen. Ahora que hay problemas de caja, en vez de reinstaurar y desandar ese camino, vuelven a gravar a quienes dependemos de una nómina. Vergonzoso. En época de vacas gordas ayudan a las rentas altas.

En la de vacas flacas, también. Y todavía tienen la cara de hablarnos de justicia social y de que hay que arrimar el hombro.

Todo el mundo sabe quién ha provocado la actual crisis, pero sigue gobernando la misma gente en bancos, instituciones, ministerios... Las rentas más altas han especulado hasta la saciedad y los poderes públicos en vez de revitalizar la economía real, lo hacen con el sistema financiero y los bancos vuelven a presentar beneficios astronómicos. Es evidente que **los ingresos de los más pudientes están creciendo incesantemente**, mientras bajan los de los trabajadores. Hemos pasado de tener los trabajadores una participación del 60% de la renta en la década de los 80, a una proporción del 44-45 % hoy en día, pero siguen pidiendo más reformas, de las que trabajadoras y trabajadores siempre salimos perdiendo: lo que quieren es no pagar nada. A la hora de recaudar, se recauda más por las rentas de trabajo, lo cual evidencia el inmenso fraude que existe y que no se combate desde el poder público por falta de voluntad política.

Neurri hauek instituzioek bultzatzen duten zerga-politika atzerakoia beste adibide lotsagarri bat dira

OHARRAK

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO AZTERKETAK

Abenduaren 9ko EHAAAn argitaratu da EBAZPENA, 2009ko azaroaren 12koa, Hezkuntzako sailburuordearena, 2010. urtean hezkuntzako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzekeo azterketarako deia egiten duena.


Interesdunek lekuan lekuko Hezkuntza Ordezkaritzara zuzenduko dute matrikula. Matrikulatzeko epea 2010eko urtarrilaren 7an irekiko da eta hil horretako 15ean itxiko.

ZUZENDARIEN HAUTAKETA

Abenduaren 28ko EHAAn argitaratu da AGINDUA, 2009ko azaroaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendean dauden Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan, 2010eko ekainaren 30ean zuzendari postua hutsik geratuko den horietan, zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketa iragartzen duena.

Eskabideak aurkeztea: 2010eko urtarrilaren 11 eta 22a bitartean, biak barne; 2010eko ekainaren 30ean zuzendari postua hutsik geratuko den ikastetxeetakoren bateko zuzendari karguan aritu nahi duten pertsonak idatzizko eskabidea egin eta dagokien Lurralde Historikoko lurralde-ordezkaritari igorri behar diete. Pertsona bakoitzak, gehienez, hiru ikastetxetako zuzendari izateko bere hautagaitza aurkez dezake.

Eskabidearekin batera, alegatzen diren merituak egiaztatzen dituzten dokumentuak bidali behar dituzte eta, horrez gain, otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuaren 4. artikuluan zehazten den d) eskakizunean ezarritakoaren arabera Zuzendaritza Proiektua.



BANAKO DIRULAGUNTZAK

Abenduaren 29ko EHAAAn argitaratu dira EBAZPENAK, 2009ko abenduaren 2koa, Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariarena eta, 2009ko abenduaren 4koa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena, Hauen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleei bana-banako diru-laguntzak ematen zaizkie, sail honek eskainitako kanpoko prestakuntza-jardueretan parte har dezaten laguntzeko.

HARPIDETZA ORRIA / HOJA AFILIACION

N.º AFILIACION / AFILIAZIO ZENBAKIA

Nombre / Izena _____
 1.º apellido / 1. abizena _____
 2.º apellido / 2. abizena _____
 Fecha de nacimiento / Noiz jaioa _____
 Lugar de nacimiento (Indicar provincia) / Non jaioa _____
 D.N.I. / N.A.N _____

DOMICILIO / HELBIDEA

Dirección / Helbidea _____
 Localidad / Herria _____
 Provincia / Probintzia _____
 Teléfono / Telefonoa _____

EMPRESA DONDE TRABAJA / LANTOKIAREN IZENA

Nº Inscripción Seguridad Social / Aseguro Sozialaren Zenbakia _____
 Nombre / Izena _____
 Domicilio / Helbidea _____
 Localidad / Herria _____
 Tipo de industria / Industri mota _____
 Convenio / Konbenioa _____

PAGO DE CUOTAS / KUOTEN ORDAINKETARAKO

Banco o Caja de Ahorros / Bankua edo aurrezki-kutxa _____
 Sucursal / Sukursala _____
 N.º de cuenta / Kontu zenbakia _____
 Tipo de cuota / Zein mailako kuota _____
 Fecha de solicitud / Eskabidea noiz egiten duzu _____

Firma / Sinadura